BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO OTORDUETARAKO TXARTELEN HORNIDURA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Zinemaldiko langileentzat otorduetarako txartelak hornitu eta Zinemaldiko bulegoetan entregatuko dituen enpresa bat kontratatzea da.

2.- EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK

Hornikuntzaren ezaugarriak eta nolakotasunak hauek dira:

- Otordutarako txartelak taloi-formatuan ematea, dagokion zenbakiarekin, sailaren arabera taldekatuta, Zinemaldiaren izenean eta txartel bakoitzaren zenbateko nominala adierazita, esleipendunak aurrez hitzartutako jatetxeetan erabiltzeko.

- Zinemaldiak taloi bakoitzean joango den txeke kopurua aukeratzeko ahalmena izango du.

- Otordutarako txartelen eskaerak abuztua eta iraila bitartean egingo dira. Orientabide gisa, 2022an 13.000 txartel erabili ziren. Hainbat eskaeratan egin ahal izango dira.

- Eskatu eta 24 orduko epean entregatu beharko dira.

- Sergurtasun-arrazoiak direla medio, enpresa esleipendunak paketatuta banatuko ditu eskaerak, mintz garden batekin zigilatuta eta pakete bakoitzaren edukia azaltzen duen idatzi batekin. Bidalketa Zinemaldiak izendatutako pertsonari igorriko zaio.

- Enpresa esleipendunak ez du gutxieneko komisiorik kargatuko eskaera bakoitzeko.

- Zinemaldiak eskatutako txartelen balio-denborari buruzko informazioa emango du eskaera bakoitzean.

- Otordutarako txartel bakoitzaren prezioa Zinemaldiak ezarriko du urtero. Orientabide gisa, 2022an 6,25€-ko txartelak eman ziren. Ez da aurreikusten balio txikiagokoak izango direnik.

- Txartelaren tokian ez da inoiz dirurik itzuliko, ezta otordu-zerbitzua edo janaria erostea ez den beste ezer eskainiko ere.

- Hondatuta edo partzialki apurtuta dauden txartelak ordezkatu egingo dira, aldez aurretik aurkeztuta.

- Inork txartelak galdu dituela jakinarazten badu, eta, iraungi aurretik, haiek jatetxeren batek kobratu dituela ageri ez bada, txartelen zenbatekoa itzuli egingo zaio Zinemaldiari.

- Erabili ez diren txartelak, iraungi badira ere, enpresa jaulkitzaileari itzuliko dizkio Zinemaldiak, haien zenbatekoa berreskuratzeko, kopuru-mugarik gabe eta eskaera egiten denetik urtebeteko epean.

- Fakturan banakatu beharko dira: otordutarako txartelen kostua eta zerbitzua kudeatzeagatiko komisioaren zenbatekoa (jaulkitako txartelen balio nominalaren gaineko ehunekotan). Ez dira gastu gehiago jasanaraziko.

- Bezeroarentzako arreta zerbitzua: esleipendunak doako telefono-zenbaki bat ipini beharko du zalantzak eta kontsultak argitzeko.

- Zinemaldiak iradokitako jatetxe guztien afiliazioa bilatuko du enpresa esleipendunak, batez ere lantokitik gertuen daudenena. Era berean, jatetxe horien zerrenda eguneratuta edukitzeko ahalegina egingo da, behar denerako.

- Enpresa esleipendunak, aldizka, Zinemaldiaren esku ipiniko du otordutarako txartelen zerbitzuen inguruan sor litekeen informazioa, alderdi juridikoei, fiskalei zein sozialei dagokienez.

- Otordutarako txartelak Zinemaldiko bulegoetan entregatuko dira, astelehenetik ostiralera, eskaera egiten den unean indarrean dagoen ordutegian.